

6. BOTERE POLITIKOA

ETA ESTATUA

6.1.-Estatu modernoren agerpena.

Estatua, Weberren definizioaren arabera, “lurralde jakin baten barruan biolentzia legitimoaren monopolioa duen erakundea da”.

Estatuaren egitura, gaur egun ezagutzen dugun eran, zerbait modernoa da. Mendebaldeko Europan, XV.-XVI. mendeetan eraikitako errealitatea da. Erdi Aroan ez zegoen Estaturik. Garai hartako egitura politikoa poliarkikoa zen, hau da, botere gune asko ematen ziren, lotura feudalen bidez elkarturik, baina ez ziren subiranoak. Legeak ez ziren lege positiboak, agintariek sorturikoak, baizik eta lege naturala izaten zen nagusia, ohitura eta tradizioetan oinarritutakoa. Jauntxoek edo agintariek lege natural horiek ez bazuten errespetatzen norbere buruaren defentsarako eta erresistentziarako eskubidea zegoen.

Edozein Estatuaren bi zutabe nagusiak ejertzitza edo polizia (biolentziaren monopolioa), eta ogasun sistema iraunkorra (diru iturria) dira. Horiek lortzeko zentralizazio prozesu bat emango da monarkia absolutuen inguruan. Lehen ejertzitza profesional iraunkorrak sortuko dira eta zergetan oinarritutako ogasun sistemak eratuko dira. Azken hau lortzeko ekonomia dinamiko bat beharrezkoa izango da. Horregatik esaten da Estatu modernoaren eraketa eta kapitalismoaren hedapena elkarren osagarri direla. Horrela eraiki zen Europako Estatuaren sistema. Elkarren arteko lehia ekonomiko, politiko eta militarren bidez sendotuko zen Estatuaren sistema.

6.2.-Boterearen kontzeptua.

Boterea goitik beherako harreman sozial bat da, non, aginte ahalmena daukatenek bere borondatea edo nahia inposatzen diete euren esanetara daudenei, nahiz eta azken hauek agindu horien kontra egon.

Boterea harreman sozial gehienetan ematen den fenomeno da, baina guri interesatzen zaiguna botere politikoa da. Harreman sozial objektibo bat da, hau da, status edo kokapen sozial jakin batzuei dagokiena eta ez pertsona edo gizabanako jakin batzuei. Izaera objektibo hori gauzatzeko arau juridikoak edo legeak erabiltzen dira. Horrela boterea zerbait abstraktua bihurtzen da

Botereak eraginkortasuna bilatzen du, hau da, bere aginduak bete egin behar dira, eta horretarako baditu mekanismoak nahiko unibertsalak direnak. Horien artean biolentzia edo biolentziaren mehatxua izaten da inportanteena. Toki eta une guztietan egon dira tresnak jendea makurrarazteko eta horretan datza boterearen unibertsaltasuna, bere mekanismo koaktiboen erabilpenean.

6.3.-Boterearen legitimazioa.

Esan dugu bortizkeria dela edozein botereak duen azken mekanismoa bere aginduak betearazteko, baina, biolentzia gordinean bakarrik oinarritzen den botereak lan handia egin behar du edozein agindua aurrera eramateko. Honelako boterea ahulegia izango litzateke, eta beti egongo da norbait agintarien ahalmena zalantzan jarriko duena. Boterea eraginkorragoa izango da agindutakoen onarpena eta atxikimendua lortzen badu. Agindutakoek onartzen badute aginduen beharra, eta agintarien gaitasuna agindu horiek emateko, berez gauzatuko da boterea neurri koaktiboak erabili barik. Boterearen onarpen kolektibo honi **boterearen legitimazioa** deritzogu. Gai hau sakonean aztertu zuen Max Weberrek eta hiru legitimazio mota sailkatu zituen:

- 1) **Legitimazio tradizionala:** Onartzen da agintarien ahalmena aspaldidanik datorrelako. Agintarien eta agindutakoen arteko banaketa konkistaren bidez edo aspaldiko gatazken bidez sortu zen eta ordutik hona onartu egiten da tradizioek eta eguneroko ohiturek horrela eskatzen dutelako. Agintariak nolabaiteko zantzu erlijiosoak ematen diote botereari. Jainkotasunaren leinukoak edo jainkoen ordezkariak izaten dira batzuetan agintariak. Normalean aldaketa gutxi jasaten duten gizarte tradizionaletan ematen da. Monarkia da botere tradizionalaren adibiderik ezagunena.
- 2) **Legitimazio karismatikoa:** Bere oinarria agintari batzuen dohain pertsonalak (karisma) dira. Pertsona batzuk berezko ezaugarriak dituzte: konfidantza sortzeko, erakargarritasuna, lidergoa. Krisi egoeratan jendea prest egoten da honelako lidergo naturalen atzetik joateko. Profetek, lider erlijiosoek, zenbait politiko iraultzaile edo berritzailek izaten dute honelako karisma. Hala ere, botere iturri hau behin-behinekoa izaten da. Boterea lortu ondoren karismak bere distira galtzen du.
- 3) **Legitimazio legal-arrazionala:** Arauak edo legeak agintzen du egoera honetan. Gizarte oso konplexu eta aldakorak izaten direnean botereak galtzen du bere ezaugarri pertsonala eta aginduak eta arauak abstraktuak dira. Honelakoa da gaur egundo Zuzenbideko Estatuak. Estatuak duen burokrazia aginduak aurrera eramateko tresna da. Oinarrizko lege ia sakratuak (konstituzioak) egoten dira agintarien ahalmena mugatzek. Prozedura eta araudi formalak funtsezkoak izaten dira.

Errealitatean legitimazio mota hauek ez dira hain era garbian ematen, baizik eta nahasita agertzen dira, baina beti dago garrantzia gehiago duen formaren bat.

6.4.-Politikagintzaren ezaugarri mitikoak.

Politikaren esparrua ez da oso razionala izaten. Arrazoiak baino gehiago emozioek izaten dute lehentasuna. Zenbait eta zailagoak, zenbait eta urrunagoak helburu politikoak are eta garrantzitsuagoa atxikimendu emozional hori. Azken finean sinesmenak izaten dira, eta sinesmenak kasu batzuetan arrazoiaren kontrakoak izaten dira.

Oinarrizko bereizketa egin daiteke jarrera kritikoa(razionala) eta jarrera mitikoen artean.

Jarrera kritikoa

- Bereizten dira norbera eta inguruko errealitatea
- Analitikoa da (zatiak eta osotasuna berezituz)
- Urruntasuna errealitatearekiko

Jarrera mitikoa

- Errealitatea parte hartuz ezagutzen da ez dago objektiboa izateko aukerarik
- Edozein zatia eta osotasuna gauza bera dira (*pars pro toto*).
- Errealitatea era dramatikoan bizi izaten da, etengabeko borroka.
- Lagunak eta etsaiak baino ez daude.

Mitoak oso baliagarriak dira errealitatea interpretatzeko: integratzailea, mugiarazlea, argitzailea.

Historikoki mito gehienak politiko-erlijiosoak izan dira. Gaur egun, aldiz, eta mendebaldeko gizartetan bereziki, erabat sekularrak dira.

Boterearen errealitate gordina leuntzeko eta ezkutatzeko garatzen dira mitoak.

Mitoak eta utopiak oso ezberdinak dira. Utopiak zerbait logiko eta razionala izaten dira.

Pentsamendu mitikoa indarrean mantentzeko eta emozioak pizteko oso inportanteak izaten dira mota guztietako sinboloak eta bere inguruko ospakizunak. Banderak, himnoak, mobilizazioak, jai egunak, historiaren interpretazio interesatuak; elementu guzti hauekin bizirik irauten dute jarrera mitikoek.